

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merktuaren segmentazioa gure jomuga izango diren bezeroen definizioa da, bezeroak edozein negozio-ereduren oinarria eta bihotza dira. Beraien beharrak hobeto asetzeko hauek beraien ezaugarri komunen arabera taldekatu ditugu, beraien beharrian eta lehentasunen arabera.

Gure bezeroak bitan banatuta daude. Alde batetik, beraien ibilgailua erabiltzen ez duten eta diru apur bat irabazi nahi duten pertsonak, eta, bestetik, une zehatz baterako ibilgailu bila dabiltzanak.

Bi multzo hauek hobeto ulertzeko, auto bat erosi duen eta haren kostua amortizatu nahi duen pertsona baten lekuan jarri behar gara. Bezero mota honek auto bat erosi du. Baina ez du auto hau denbora tarte luze batez erabili behar. Gainera, jakitun da ibilgailuek denbora pasa ahala balorea galtzen dutela eta bere ibilgailuari etekin ekonomiko bat atera nahi dio. Etekin hau autoa uzteagatik lortutako ondasun ekonomikoak bezala, autoa geldik garaje baten ez edukitzeagatik lortutako diruak osatzen dute. Orobat kontziente da gaur egungo ibilgailu industriaren kutsadura onartezinaz eta bere hare-alea jarri nahi du.

Gure jomuga den beste bezero mota, ibilgailu bat erosi ahal edo nahi ez duen pertsona da, honen kostuarengatik, ekologiarengatik, balio etikoengatik eta abar. Beraien bizitza garraio publikora moldatu badute ere, oraindik egoera puntual batzuetan auto partikular bat behar duten bezeroak dira, zeren eta erosotasunagatik, ordutegiagatik edo garraio mota horrekin beraien helbugara iritsi ezin direlako. Garraio seguru, merke eta ekologiko baten bila dabilta.

Autoa lortu nahi duten bigarren bezero mota alokairu enpresa tradizionalengandik desberdina den irtenbide ekologikoago bat behar duten bezeroak dira. Pertsona hauek jakitun dira beroketa klimatikoaren larritasunaz, horrela ahal dutena egin nahi dute egoera hobetzeko. Orobat, kontziente dira alokairu konpainia tradizionalen enpresa-eredu jasanezinaz. Pertsona hauek autoa denbora tarte labur batean behar dute. Bezero hauei erantzun seguru, merke eta ekologiko bat eskaintzen diegu.

Gure eginkizuna, Gurpil-Bidez bezala, bi bezero hauek konektatzea da. Horrela, behar hauek era seguruan, arduratsuan eta azkarrean asetuz.